



2009KO URRIAREN 29KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bederatziko urriaren hogeita bederatzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2009ko irailaren 24an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 2008KO KONTU OROKORRA.-

2008 ekitaldiko Kontu Orokorra Kontuetaarako Batzorde Berezian aztertu eta informatua izan zen 2009ko uztailaren 13an honek egindako bilkuran.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2009ko abuztuaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2008 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

Kontu Orokorrak honek udalaren Kontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anoni-
moaren 2008ko urteko kontuak hartzen ditu barne.



IV.- ESTALI GABEKO IGERILEKUA LANEN 4. OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren aldamenean eraikitzen ari diren Estali Gabeko Igerilekuak lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingenieria, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoek lanen 4. obra-egiaztagiria luzatu dute. Laugarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa HIRUROGEITA ZAZPI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEI EURO eta HIRUROGEITA BEDERATZI ZENTIMOTakoa (67.660,69 €) da. Lan hauek Altuna y Uria, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Serna zinegotziak (PSE-EE) obraren egoerari buruz galdetzen du eta alkateak erantzuten dio epeetan behar bada zerbait luzatu egingo dela baina dirualdetik aurrikuspenen arabera dihoala.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Estali Gabeko Igerilekuen eraikuntza lanen laugarren obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

V.- 1 H.J.A.KO -C.A.F.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA.-

Udal honek, 2009ko otsailaren 27ko alkatetzaren ebazpen bidez, AA.SS.etako 1 H.J.A.ko -C.A.F.- Hiri Antolamenduko Plan Berezia hasierako izaeraz onartu zuen.

Dokumentua jendaurrean erakusgai eduki zen 20 egunetan, iragarkiak 2009ko martxoaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2009ko martxoaren 4ko Berria eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratuz.

Bestalde hasierako onarpen honen berri eman zitzaion C.A.F. enpresari eta Beasaingo Udalari, Plan Bereziak hartzen duen eremuak Beasaingo udalerriarekin muga egiten bai du.

Baita ere lurzoruaren kalitatearen inguruko informazio eskaera egin zitzaion IHOBE erakundeari eta txosten eskaerak Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentua eta Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzari.

Jendaurrean egon zen denboraldian 2 alegazio jaso ziren, bat Beasaingo Udalak eta bestea C.A.F. enpresak aurkeztutakoak. Bi alegazio hauetan, besteak beste, planaren muga Beasaingo udalerriarekiko aldatzea eskatzen zen, muga hau bi udalerrietako planeamendu orokorrean jasotakoarekin bat etor zedin.

2009ko ekainaren 1ean emandako alkatetzaren ebazpen bidez, Beasain eta Lazkaoen arteko mugak AA.SS.ek markatzen dutenera egokitu ondoren egindako 1 H.J.A.ko Plan Bereziaren dokumentuaren bertsio berriari hasierako onarpena eman zitzaion.

Dokumentua jendaurrean jarri zen 20 eguneko denboraldian, iragarkiak 2009ko ekainaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2009ko ekainaren 5eko Berria eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratuz.



Bestalde eta hasierako bertsioarekin egin zen bezala, ukitutako erakunde guztietara bidali zen dokumentua eta gainera Madrid-Irun trenbidearen administratzailea den ADIF Patrimonio y Urbanismo erakundera eta Gipuzkoako Ur Kontsortziora.

Jendaurrean egon den denboraldian 2 alegazio jaso dira, bat C.A.F. enpresak eta bestea A.D.I.F. erakundeak aurkeztutakoak.

Bestalde Ur Agentziaren txosten sektoriala eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusiaren txostena jaso dira baita ere.

Alegazio eta txosten hauen aurrean dokumentuaren egile eta udal arkitekto aholkulariak direnak egindako txostenean zera jasotzen da:

- 1 zbk.dun alegazioa, C.A.F.ek aurkeztutakoa, 2009-06-29koa, sarrera zbkia.: 1281.-

Lehenengoa:

Alegatzailearen aldetik behin eta berriro Konpatibilizazio Plan bat erredaktatu eta tramitatzearen beharrari buruz, alegazioaren aurreko erantzunean adierazi zen bezala, udaletxe bakoitzak bidesarearen ebakidurei eman behar dien konponbide aproposa ez da Konpatibilizazio Plana bezalako tresna baten ardura, oinezkoen eta txirrindularitza zirkulaziorako zabalerak besterik ez baitaude zalantzan, gai hau hiri-diseinuari buruzko alderdi bat izanik, urbanizazio proiektuan sartzen dena baina ez Planeamendu Orokorreko konpatibilizazio plan batean.

Aurrekoa ikusi ondoren, alegazioa ezestea proposatzen da.

Bigarrena:

Lehenengo aipatu beharra, alegatzailearen aldetik alegazioen ezestea justifikazio gabe egin dela behin eta berriro esateak, Planaren erredakzioa eta tramitazioari zehaztasun falta egotzi nahiaren estrategia bat planteatzea besterik ezin du eduki helburutzat, hau inolaz ere egia ez izanik.

Planteatzen diren justifikazioak alegatzailearen eskaerekin bat ez badatoz, ez du justifikaziorik ez dagoela esan nahi. Adibide bezala, aurreko alegazioan atal honen erantzunean adierazitakoa:

Eremuaren barnean kutsatuta egon daitezkeen lurreri buruzko Planaren txostenaren 2.5 puntuan adierazten den bezala, Plan Bereziak 3/1998 Ingurumenaren Babeserako Lege Orokorren 83 eta 84.2 artikuluek eta Otsailak 4ko 1/2005 Lurren kutsaduraren prebentziorako eta zuzenketarako Legeetan zehaztutakoa, batez bere IV kapituluan zehaztutakoa, kontutan hartzen du.

1/2005 Legearen 17.artikuluaren, derrigorrezkoa izango den kasuak, baita "Lurraren Kalitatearen Deklarazioa egiteko jarraitu beharreko prozedura, zehazten ditu. Zentzu honetan, Legeak bere 17.artikuluaren "kutsatu dezakeen jarduera edo instalazio bat eduki duen edota gaur egun daukan lur baten edozein kalifikazio aldaketa", beti ere aldaketa hori artikulua



honen 8. atalean jasotako salbuespenak aplikatu ez daitezkeenean, lur horren kalitatearen deklarazio eskatu beharko da bere behin-betiko onarpena baino lehenago.

Ihobe-ri kontsulta egin ondoren, aurretik adierazitako irizpidea berresten da, lurraren kalifikazioa aldatzen den lursail txiki batentzat, industria-lur bat izatetik espazio libreen sistema lokal bat izatera pasatzen baita, beraz eremu honentzat beharrezkoa dela ulertzen da, gunearen azterketa historikoaren kontura, lurraren kalitatearen ziurtapenaren espedientearen hasiera.

Beraz justifikazioa guztiz zehaztuta gelditzen da, lursail baten erabilera aldatzean, industri-lurzoru bat izatetik espazio libreen sistema lokal batera pasatuz, lursail horretan egin beharko diren hirigintza-obren tamaina kontutan eduki gabe.

Alegazioa ezestea proposatzen da.

Hirugarrena:

Aurreko alegazioaren erantzunean adierazitakoa errepikatzen da, oinezkoen eta txirrindulari bideen diseinuaren irizpideei buruz Lazkaoko Udalak egindako justifikazioak balioarazteko, nahiz eta alegatzaileak justifikazio hauek ez dituen atsegin.

Lazkaoko Udalarentzako, hiru udalen arteko bide-ebakidura desberdinak, udal bakoitzak CAF-en eremuetako trafikoen ordenazioan aurkitzen dituzten arazo desberdinetan oinarritzen dira, baita udal bakoitzak, bere gaitasunean, hiri-ordenazioan egokitzen dituzten irizpideetan.

Era hontan eta beti ere posible bada, Lazkaoko Udalak oinezko eta txirrindularitzarako tar-te berrientzako erabiltzen duen irizpidea, bi erabileren arteko ebakidura 6 metrokoa izatea da. Adierazpen hau, Hiribarren kalearen luzeeran Foru Aldundiak proiektatzen ari den bi-degorri eta oinezkoen espaloia-aren diseinuan egiaztatu daiteke, non Beasain eta Ordiziatik datozen oinezkoen eta txirrindularien trafikoari Lazkaoko erdiguneraino jarraitasuna ematea lortu nahi dute.

Alegazioa ezestea proposatzen da.

Laugarrena:

Aurreko kasuetan bezala, aurreko dokumentuarekin aurkeztutako alegazioa errepikatzen da, industriako trafiko astunak eremuan erakar ditzakeen arriskuak adierazteko zentzuan eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako segurtasun falta aldetik.

Hori bai, aurreko alegazioen txostenean komentatu zen bezala, ez da eremuko oinezkoen eta txirrindularien segurtasunagatik bakarrik beldurra izan behar, baita GI-4491 errepide-tik ibiltzen diren motordun edozein ibilgailuen trafikoaren segurtasunagatik.

Honegaitik, ezinbestekoa da bai Plan Bereziak, baita Hirigintzako Jarduketa-Programa eta Urbanizazio Proiektuak, bakoitzak bere gaitasunaren barnean eta bakoitzari dagokion xehetasun mailan, jarduera industrialetik kanpo eta erabilera eta dominio publikotik ibiliko diren hiritarrentzako arriskuak gutxieteko edota kentzeko beharrezko neurriak zehaztea.



Guzti honengatik eta espedientean aurretik adierazi den bezala, honegatik Arau Subsidia-rioetan oinezkoen eta txirrindulari-trafikoen udalen arteko konexioa hobetzea hartu dutela helburutzat, gaur egun erabilera hauen bideragarritasunaren baldintzak oso txarrak baitira.

Aurretik Plan Bereziak lurren ordenazio xehatua aztertzen duela adierazi da, sistema orokor eta lokaleko espazioak barne, eta Hirigintzako Jarduketa-Programa izango da, bere urbanizazio aurreproiektuaren barnean, bide eta oinezkoen segurtasuna bermatuko dituen zuzenketa neurriak proposatuko dituen, hainbat proposamen zehaztuz: tarte batzuetan pabilioietako tren eta kamioien sarrera eta irteeretan semaforoak planteatuz, abiadura erreduktoreak eginez, maniobrak errazteko bideen sestran moldatuz, etabar. Gainera, Urbanizazio Proiektuan zehaztuko diren neurri horiek CAF-eko jabeekin kontrastatu beharko dira, produkzio prozedurako afekzioak murrizteko.

Azkenik, eta bideen arriskuak murrizteko planteatzen diren soluzioen barnean, planaren diseinuaren lehengo faseetan aztertutako zirkulazio aukerak baloratu dira, Udaletxe eta CAF-en artean hasierako akordio bat zehaztuz, hirigintza-hitzarmen batean gauzatu ahal-ko dena, bertan N1 errepidearen azpiko trafikoarentzako konponbide onena hurrengo hau dela adieraziz: 2,25 metroko bidegorriaren trazadura N1 tunelaren lehenengo arkoaren azpitik joango litzateke, GI-4491 errepidearekin batera, zein bere zabalerara 5,50 metrotara murriztuko luke. Bideplanteamendu honek, Foru Aldundiko Kudeaketa eta Plangintzaren Zuzendaritza Nagusiaren oniritzia jaso du.

Beste alde batetik, oinezkoen trafikoa, tunelaren bigarren arkotik pasatzen jarraituko luke, noizbehinka espazio hau CAF-eko trenekin banatu beharrean, guzti hau urbanizazio proiektuan zehaztu beharreko segurtasun neurriekin araututa.

Aurrekoa ikusi ondoren, alegazioa partzialki baiestea proposatzen da, bidegorri berriaren diseinua Diputazioaren errepidearen aldameneko N1 errepidearen arku nagusiaren azpitik pasatzea posible izanik eta oinezkoen trafikoa bigarren arkutik mantenduz.

Bosgarrena:

Alegazioari erantsitako datuen zerrenda, espazio libreen sistema lokalaren koantifikazioari buruzkoak, eta gehienak Plan beretik ateratakoak izanik, zuzenak dira eta egungo hirigintza araudiak zehaztutakoarekin bat datoz.

Hori bai, Ekainak 30ko 2/2006ko Legearen 79.3 artikulua adierazitako puntualizazioan, sistema lokalen sarean dotazio publikoetarako lurzoruen gutxienezko erreserba zehazten den puntuan, alde batetik Plan honetan zehaztutako erreserba justifikatzen du.

Honi gehitzen badiogu, nahiz eta alegatzaileak egokitzen ez eduki, gainerako eremuan lagapenik ez egotea, Planak berak hiri-lurzor hori finkatzen duela jakinaz eta Agauntza ibaiaren ingurumen eta paisaiaren babeserako zerrenda ez dela industri erabilerarekin bateragarria, (gaur egun zerrenda horretan gauzatzen diren industri erabilerarekin frogatzen den bezala), Planean zehaztutako sistema lokalen espazioen mugapena eta koantifikazioa guztiz justifikatzen da.

Beste alde batetik, nahiz eta alegazioak kontrakoa esan, Planak finkatutako eremuan kokatutako pabilioien irtenbiderako erabiliko diren lurzoruen domeinu eta erabileraren erre-



gimena zehazten du, lursail hauek CAF berak adierazitako irizpideak jarraituz mugatu dira, probentzako nabearen irtenbideak aldatzeko baimen eskaeran azaldutako irizpideak jarraituz, non textualki hurrengoak idatzi zuten: *"aparkaleku-bidea desmuntatuko da, bere materialak bide berria egiteko berrerabiliz"*

Azkenik eta aurretik komentatu den bezala, arriskuak gutxitzeko bideentzako irtenbideak planteatzerakoan, etorkizuneko zirkulazio aukerak baloratu dira, Udaletxe eta CAF-en artean hasierako akordio bat ezarriz, bertan N1 errepidearekin paraleloki mugatzen duen f.10.1.3 lursalairen zatia berriro errekalifikatzea planteatzen da, espazio librean sistema lokalaren lagapen-lurzati bat bezala hausnartuz.

Aurrekoa ikusi ondoren, alegazioa ezestea proposatzen da.

Seigarrena:

a) Egungo trenbideei buruz (azpiegitura pribatuak), II.1.1. eta II.2.3 planuetan adierazten den bezala, Planak lurzati pribatuetakoko egungo bideak finkatzen ditu, CAF-ek eskutako baimenegatik aldaketaren bat planteatuz.

Trazadura hauei jarraitasuna emateko lur-publikotik pasatu beharko diren trenbide zatiei buruz, gaur egun funtzionamenduan dauden trenbideak besterik ez dira izango bateragarriak ezarritako ordenazioarekin, hauek CAF-en alegazioarekin batera entregatu diren planuetan agertzen direnak izanik, 10 unitate/hilabeteen izenpean daudenak.

GI-4491 errepideari paraleloki doazen trenbideak ere finkatuta bezala ulertzen dira, baina hauek desbideratzea posible den zatietan, Planak zehaztutako lurzati pribatueta pasatu beharko dira.

Aurrekoa ikusi ondoren, alegazioa ezestea proposatzen da.

b) Alegazioan ordenazioz kanpo dagoela adierazten den eraikinaren zatiaren kalifikazioa aldatua izan daiteke, N1 errepidearen azpiko bidearentzako pabilioian eraginik edukiko ez duen irtenbide bat aurkeztean, beraz, puntu honetako alegazioa baiestu egiten da.

Aurrekoa ikusi ondoren, alegazioa baiestea proposatzen da.

c) Zerbitzu Teknikari hauek ez dakite CAF-ek dokumentazioa jaso duen edo ez, baina edozein modutan, azterketa hidrauliko hau dokumentu publiko bat da, beraz Udaletxean edozeinen eskura dago.

Aurrekoa ikusi ondoren, alegazioa ezestea proposatzen da.

d) Alegazioaren seigarren puntuko laugarren atalaren erantzun bezala, aurreko erakustaldi epean gai berdinari emandako erantzun osoa berridazten da, erabakiaren justifikazioa, idazten duten teknikarien iritziz nahikoa eta egokia dela berriz ere adieraziz, sistema hau jarduketa integratuaren eremuaren barnean gelditzen baita eta ez eremuaren finkatutako hiri-lurzoruan.



Zorua lortzeko eta bere exekuziorako sistema generalak Jarduketa Integratuetara atxikitzeko aukerari buruz, Ekainak 30eko 2/2006 Legeak bere 138.2 artikuluan hurrengoak zehazten du:

Sistema orokorren sareetako zuzkidura publikoetarako beharrezkoak diren lurzorua eta eskubideak jarduketa integratuetan sartu ahal izango dira edo jarduketa horiei atxiki, doan lortzeko et, hala badagokio, zuzkidura horien egikaritzea finantzatzeko.

Beste alde batetik, 186.1 artikulua hurrengoak dio:

Sistema orokorren eta tokiko sistemen sareko zuzkidura publikoetarako lurzorua eta eskubideak, jarduketa integratuetan sartuta edo haiei atxikita badaude, doan eskuratuko dira administrazioak, horretarako txikitzen edo sartzen diren egikaritzetarako, -sektore edo -unitateen kargura.

Aurrekoa ikusi ondoren, bide-sistema orokorra Jarduketa integralari atxikitzea guztiz bideragarria dela adierazi beharra dago eta Arau Subsidiarioen helburuetan justifikatuta dago, gehienbat bide-sistema hau kokatzen den lursail gehienak gaur egun lur publikoan daude-nez.

Aurrekoa ikusi ondoren, alegazioa ezestea proposatzen da.

e) Alegazioaren seigarren puntuaren bostgarren atala aurreko puntuarekin erantzunda eta behar bezala justifikatua gelditzen da, 2/2006 Legeak sistema orokorren exekuzioaren finantzaketara bidaltzen baitgaitu, eta jarduketa hau bere lerrokadura eta sestre dagokionez plan bereziaren mailan zehazten da proiektuaren planuetan, baita txostenaren idatzizko atalean, 7.3. puntuan zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretarako Departamentuaren aldeko txosten bat barne edukita, Departamentu honek egokitzen eduki du aipatutako errepide horren moldaketa zehaztea.

Aurrekoa ikusi ondoren, alegazioa ezestea proposatzen da.

f) Eremuaren Bideragarritasun Ekonomikoaren Azterketari buruz, urbanizazio eta kudeaketako gastuetan sartu beharreko partidak xehatuki aztertu dira, beraz promozioaren xehatutako azterketa baten faltan, planean aurkeztutakoaren desberdina, egokitzen da aurkeztutakoa.

Aurrekoa ikusi ondoren, alegazioa ezestea proposatzen da.

- 2 zbk.dun alegazioa, A.D.I.F. erakundeak aurkeztutakoa, 2009-07-16 koa, sarrera zbkia.: 1380.-

Lurzatiari jabetzari dagozkion auziak errepartzelazio espedientean konpondu beharko direnez, alegazioa ezestea proposatzen da, jabetzaren arazo eztabaigarria errepartzelaziora bidaliz.

Beste alde batetik eta nahiz eta alegazioan ez agertu eta trenbideen dominu publikoaren Afekzio-guneak ezartzen duen baldintzagatik, afekzio hau lur-berdinketa mugatik 8 metrokoa izanik, e.40.1.1. lurzatia aldatzea proposatzen da, eta honekin batera b.10.1.2, b.10.-



1.6 eta f.10.1.4 lursailaren moldaketaren ondorioz dagoena, "e" lurzati honetan trenbideen bi aldeetako 8 metroak barnean sartu arte.

Aurrekoa ikusi ondoren, alegazioa ezestea proposatzen da.

- Ur Agentziaren txostenaren aurrean zera esaten da:

Ur Agentziaren txostena ikusi ondoren, CAF-eko eremuaren urperagarritasun arazoaren irtenbidea, eremu honetatik ez da posible konpontzea, ezta Lazkaoko udaletik, erabakiak Beasaingo Udaletik hartu behar baitira.

Aurrekoa aztertu ondoren eta Ur Agentzian kontsulta bat egin ondoren, 100 urteko birgertatzealdien gunean egungo lurraren sestrak aldatuko ez dituen urbanizazio obrak besterik ez dira onartuko, beraz b.10.17 lurzatiaren eraikitze-garapena eta, beraz, Plan Berezia ezingo dira aurrera eraman Ur Agentziaren baldintzak bete arte.

- Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusiaren txostenaren aurrean zera esaten da:

Diputazioaren Departamentuaren aldeko txostena ikusita, N1 errepidearen azpiko errepideen proposamenarena, planteamendu hau tramitatzen ari den Plan Bereziarekin moldatu ahal dela informatzen da.

Aurkeztutako alegazioak eta txostenen azterketatik, teknikariek egindako txostenean dokumentuan honako erizpide hauek jasotzea planteatzen da:

1.- 2,20 metroko bidegorriaren diseinua posible egitea, Diputazioaren errepidearen aldameneko N1 errepidearen arku nagusiaren azpitik, bide honen zabalera 5,50 metrotara murriztuz eta oinezkoen trafikoa bigarren arkutik mantenduz

2.- f.10.1. lurzatiaren kalifikazio xehatuaren muga zuzentzea, CAF-en trenbideak eragina duten eremua bertatik kenduz.

3.- N1 errepidetik gertu dagoen eraikinaren zatiaren (bonbak) ordenazioz kanpoko kalifikazioa kentzea.

4.- e.40.1.1. lurzatia aldatzea, trenbideen zortasun publikoa barnean sartuz.

5.- Plan Bereziaren araudiaren barnean, industri-ibilgailuentzako bide bakar eta babestu bat egiteko aukera aipatzea, b.10.1.7 eta b.10.1.2.lursailen artean, f.10.1.3 lurzati publikoaren gainean.

6.- f.10.1.3 lurzatiaren muga aldatzea, CAF-eko trenbideak lurzati pribatuaren barnean gelditu ahal izateko, gurutzatze-gunean izan ezik.

7.- Plan honen barnean, CAF-eko trenbideen trazaduren gainetik erabilera publikoko zortasuna zehaztea, f.10.1.3 lurzatiaren etendura-gunean.

8.- Plan Bereziaren etapa-plana aldatzea, urbanizaziorako lehenengo etapa bat zehaztuz, f.10.1.3. lurzatiaren urbanizazioan oinarrituz, Agauntza ibaiaren aldamenean oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbide bat planteatu ahalko duen urbanizazioa.



9.- Beasaingo Udalari eta CAF-eri, eremuaren eraikuntza-garapena galarazten duen urperagarritasun arazoek konponketa eskatzea.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, aurkeztutako alegazio eta txostenak aztertu ondoren eta Hirigintza Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenaz, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- AA.SS.eta 1 H.J.A.ko -C.A.F.- Plan Bereziari aurkeztutako alegazioak zati batean onartzea. Onartzen den zati hori dokumentuaren egile eta udal arkitekto aholkulariek direnak bere txostenean adierazi eta akordio hauen azalpen zatian jasotzen den terminoetan onartzen da, gainontzeko alegazioen guztia ezeztu egiten delarik.

2.- Dokumentuaren egile eta udal arkitekto aholkulariek direnak bere txostenean, eta akordio hauen azalpen zatian dokumentuan jasotzea planteatzen dituzten erizpideak onartzea.

3.- Aurreko bi puntuetan onartutakoak kontutan izanda AA.SS.eta 1 H.J.A.ko -C.A.F.- Plan Berezia behin betikoz onartzea.

4.- Udal arkitekto aholkulariei, onartutako puntu guztiak jasoko dituen bategindako testua idatz dezaten agintzea. Bategindako testu hau berriro Osoko Bilkurara ekarriko da bere onarpenerako.

VI.- 21 H.J.A. -KANPANDEGI-AMEBI-MEANDROA-KO PLAN PARTZIALA.-

Udal honek, 2009ko uztailaren 22ko alkatetzaren Ebazpen bidez, AA.SS.eta 21 H.J.A.ko -Kanpandegi-Amebi-Meandroatik- Plan partzialari hasierako onarpena eman zitzaien.

Dokumentua jedaurreko erakustaldian jarri zen 2009ko irailaren 15a arte, iragarkia 2009ko abuztuaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2009ko abuztuaren 4ko Berria eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratuz.

Bestalde txostenak eskatu dira Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzara eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentura.

Jendaurrean egon den denboraldian 3 alegazio aurkeztu dira eta hauen aurrean udal arkitekto eta abogatu aholkulariek egindako txostenetan zera jasotzen da:

- 1 zbk.dun alegazioa, Jose Antonio Garmendiak aurkeztutakoa, 2009-07-28an, sarrera erregistro zbkia.: 1454.- Alegatzaileak esaten du Plan Partzialak kanpoan utzi dituela bere jabetzakoak diren lurren zati bat.

Teknikarien txostenetan esaten da eremuaren jasotze topografikoa egitearen ondorioz gunearen mugen doikuntza egin dela eta hori egitea arau subsidiarioen 1.2.4.1 artikulua onatzen duela.

- 2 zbk.dun alegazioa, Pilar Izagirre Auzmendik aurkeztutakoa, 2009-09-14an, sarrera erregistro zbkia.: 1648.- Planoan 17 zbk.dun lursaila 1.838,00 m² kin agertzen da eta idatzitako zatian 1.958,00 m² rekin.

Teknikarien txostenetan esaten da alegazioa baino gehiago akats baten konstatazioa dela eta beraz behin betiko onarpena ematerakoan egin behar den bakarra au aipatu eta zuzentzea dela, zuzena idatzitako zatian agertzen den metro zenbatekoa izanik, hau da 1.958,00 m².

- 3 zbk.dun alegazioa, Victor Agirrezabala Irastorzak aurkeztutakoa, 2009-09-15ean, sarrera erregistro zbkia.: 1654.- Alegatzaileak esaten du 33 eta 34 zbk.dun lursailen mugaketa ez dela zuzena, eta berak plano bat aurkeztzen du mugaketa nola behar lukeen marraztuta.

Teknikarien txostenetan esaten da plan partzialak egiten dituen jabetza mugaketak informatibo izaera dutela soilik eta ez direla lotesleak. Dena dela geroago egingo den birpartzelazio dokumentuari dagokiola jabetzari dagozkion arazoei erantzutea. Beraz alegatzaileari esan behar zaio hemen aurkeztutako arazoak dokumentu horren aurrean aurkeztu behar dituela.

Erakundeei eskatutako txostenen erantzunetan, bai Ur Agentziak bai Diputazioko Bide Azpiegituretako Departamenduak, dokumentuan hainbat zuzenketa egitea eskatzen dituzte.

Guzti hau kontutan izanda, estimatzea planteatutako alegazioa eta Ur Agentzia eta Bide Azpiegituretako Departamentuak eskatutako zuzenketak barneratzen dituen bategindako testua idatzi da.

Guzti hau honela, eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- AA.SS.eta 21 H.J.A.ko -Amebi, Kanpandegi, Meandroa- Plan Partziala jendaurrean erakutsita egon den denboraldian Jose Antonio Garmendia eta Victor Agirrezabala Irastorzak aurkeztutako alegazioak ezestea eta Pilar Izagirre Auzmendik atzemandako akatsa zuzentzea, 17 zbk.dun planoan lursailaren metro karratuak 1.958 direla adieraziz.

2.- Aurreko puntuan adierazitako zuzenketa hori eta bestalde Ur Agentziak eta Diputazioko Bide Azpiegituren Departamentuak egindako txostenetan eskatzen diren zuzenketak ontzat emanez 21 H.J.A.ko Plan partzialari behin betiko onarpena ematea.

3.- Aurreko puntuan adierazten diren zuzenketak barneratzen dituen 21 H.J.A.ko Plan Partzialaren Bategindako Testua onartzea.

VII.- EZKER ABERTZALEKO KIDEEEN AZKEN ATXILOKETEN AURREAN MOZIOA.-

Udal gobernua osatzen duten EAJ eta Alternatiba taldeak, Ezker Abertzaleko kideen azken atxiloketen aurrean mozioa aurkeztu dute. Mozioak honela dio:

"MOZIOA



Urriaren 13an, ezker abertzaleko hamar militante, Baltasar Garzon epaile espainiarraren aginduz polizia nazionalak atxilotu ditu.

Polizia operazio hau, gure gizartearen gehiengoak defendatzen duen, giza eskubide guztien defentsa irmoan eta herri honen gehiengo demokratikoaren borondatearen errespetuan oinarrituko den konponbide elkarrizketatuaren aurkako estrategi politiko batetan kokatzen da.

Aspaldian ezagutu ez den bezalako manifestazioa egin zen Donostian, gehiengo horren borondatea adierazteko, eta bai batzuk eta bai bestek ezarri nahi diguten irtenbide-gabeko eszenatoki politiko honi aurre egiteko prest dagoela adierazteko ere.

Guzti honen aurrean, udal honek honakoa adierazten du;

1.- Udalak aipatutako atxiloketak arbuiazen ditu.

2.- Aldarrikatu nahi du alderdi eta irizpide politiko guztien politikarako eskubidea; eskubide hori guztiontzat, baldintza berdinetan, Euskal Herriko gizarte eta politika mailako jardueratan aritzeko. Hortaz, askatasun eta oinarritzko eskubideen defentsak, bermea behar du, norbanakoen irizpide politikoekiko eta pertsonen gertutasunarekiko egoeren gainetik

3.- Deia luzatu nahi dio Udalak Estatuko Gobernuari, berari dagozkionetan, eta premiazko erara, bertan behera utzi dezan Alderdi Politikoen Legea, 2002ko ekainaren 27an onartua, aipatu printzipioen aurka egiten baitu bete betean.

4.- Udalak, orobat, bere konpromisoa sinatu nahi du giza eskubide guztien defentsa irmoan eta gure herriak etorkizuna demokratikoki erabakitzeko duen eskubidean oinarrituko den normalkuntzaren alde.

5.- Lan politikoa egiteagatik herritarrak atxilotu eta espetxeratzea gaitzesten du."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du harritu egiten duela EAJk mozio hau aurkeztu izana eta gehitzen du orain dela urte batzuk, Felix Urkola alkate zegoela, egun batean udaletxean hizketan aritu zirela gai hauen inguruan eta Lazkaon alderdien artean zegoen hitzeko akordio bati buruz udalean udalez kanpoko mozio politikorik ez aurkezteko, eta horrela egiten aritu direla alderdi guztiek orain artean. Gehitzen du mozioaren aurka bozkatuko dutela eta EAJri eskatzen diotela orain arte zihoan bidera itzultzeko politika orokorreko gaiak udal honetako osoko bilkuratik kanpo utz ditzala eta bestela denek era berean jokatu dutela.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du harrituta gelditu dena bera dela Serna zinegotziak esandakoekin. Gehitzen du ez duela gogoan aipatzen duen elkarrizketa hori eta baita ere esaten du udal honetako aktak agerian utziko duela ez dela lehenengo aldia EAJ alderdiak udal honetara gai politikoak dituzten mozioak osoko bilkurara ekartzearena eta baita bera alkate zegoela ere. Eta esaten du baita ere, errespeto guztiz baina nahiko pobrea iruditzen zaiola mozioari ezetza ematearen arrazoia aurreko alkateak politikako gaiak ez zituela osoko bilkurara ekartzen esatea.



Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du behar bada ez duela ondo adierazi baina mozioaren aurka bozkatzeko arrazoia ez dela izandako elkarrizketa hura baizik eta beste batzuetan, legearen aurka jarduten zuten pertsonen atxilotetaren aurka zeuden herritarrek aurkeztutako era honetako mozioetan eman dituzten arrazoi berak direla, eta dirudie-nez pertsona hauek atxilotu dituzteneko arrazoi bera dela.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, Alternatiba), aurkako 4 botu (PSE-EE, PP) eta abstentzio batez (Lurdes Garmendia) mozioa onartu egiten da.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziur-tatzen dudalarik.

